

2023 IRAILETIK
ABENDURA

PROGRAMA

**DONOSTIAKO
EMAKUMEEN**

ETXEA Okendo kalea, 9



AURKEZPENA

Emakumeen Etxea da gune bat, non emakume ugari eta askotarikoak biltzen garen, prestakuntza jasotzeko eta gogoeta nahiz ekintzak egiteko.

Bertan, zerbitzuak, tailerrak, taldeak eta jarduerak eskaintzen ditugu 2010az geroztik, emakumeen bizi-modua hobetzeko, eta berdintasunean eta feminismoan oinarritutako gizarte bat lortzeko.

Emakumeen elkarte mugimendua eratu da Emakumeen Etxea Elkartearen inguruan; hain zuzen, etxeko jarduerak kudeatzeko eta dinamizatzeko helburuz. Denbora igaro ahala, Elkarteko bazkide aktiboenak batzordeak eta lantaldeak sortzen joan dira, haien interesen arabera. Batzorde bakoitzak bere helburuak ditu, eta bazkideek batzorde guztietan har dezakete parte.



Okendo kalea 9, 20004 Donostia



943 48 34 70



Astelehenetik ostiralera
10:00 - 21:00



info@donostiakoemakumeenetxea.com
berdintasuna@donostia.eus



www.donostiakoemakumeenetxea.com

ZER AURKITUKO DUZU PROGRAMA HONETAN?

→ ESKOLA FEMINISTA

- **Matraka guneak**

Irailetik udara arteko luzapena duten ikastaroak. Izen-ematea irailean egiten da.

- **Formakuntzarako blokeak**

Iraupen laburrekoak, gai espezifikoak lantzeko. Izen-ematea irailean edo urtarrilean egiten da.

→ ELKARGUNEAK

Ikasturte osoan zehar biltzen diren taldeak. Urte osoan irekiak. Bat egiteko, deitu edo etorri Emakumeen Etxera.

→ AHOLKULARITZA-ZERBITZUAK

Aldez aurretik hitzordua eskatuta. Hitzordu bat eskatzeko, deitu edo etorri Emakumeen Etxera.

NOLA PARTE HAR DEZAKEZU EMAKUMEEN ETXEAN?

- Elkarteko bazkide egiten (e-mail bidez Etxeko informazio guztia jasoko duzu).
- Elkarteko Lan-Batzorde batekin bat eginez. Idatzi info@donostiakoemakumeenetxea.com helbidera.
- Etxeko ikastaro edota tailerretan izena emanaz.
- Batzarrean parte hartuz.

KONTUAN HARTU BEHARREKO OHARRAK:

- Ikastaroetan **izen ematea irailaren 4tik 17ra arte** egingo da. Gutxieneko inskripziiora iristen ez diren ikastaroetan izena emateko epea luzatu egingo da, ikastaroa hasten den egunera arte.
- Izen-ematea Internet bidez egingo da honako web orrialdeetan: www.donostiakoemakumeenetxea.com
www.donostia.eus/berdintasuna
Anima zaitetz eta hurbil zaitetz Etxera, ez geratu izena eman gabe.
- Ikastaro, zerbitzu eta ekimen guztiak doakoak dira.
- Pertsona bakoitzak gehienez hiru ikastarotan eman ahal izango du izena.
- Zerbitzuetan hartutako hitzorduetara aurrez abisatu gabe joaten ez direnek ezin izango dute zita berririk eskatu, urtebeteko epean.
- Ikastaroa hasi eta gero utzi nahi dutenek, Etxeko koordinatzaileei jakinarazi beharko diete. Hiru saiotan kale egiten duenak -justifikatu gabe-, ezingo du ikastaro gehiagotan parte hartu urtebeteko epean.
- Zozketa egingo da izena eman dutenen kopurua plaza kopurua baino handiagoa bada. Nolanahi ere, bakoitzari mezu elektronikoko bat iritsiko zaio jakinarazteko plazarik baduen, nola baieztatu behar duen eta, hala badagokio, itxaron zerrendan zein posizioan dagoen.

MATRAKA GUNEAK

Gune hauek irailean irekitzen ditugu eta batzuetan, toki libreak geldituz gero, urtarrilean ere bai. Bertan ikasturte osoko lanketa feminista bat egiten da eta Etxetik kanpoko proiektzioa duen talde bat sortzen da.



ANTZERKI LABORATEGI FEMINISTA

Formatzailea: Aitziber Eguskiza

Eguna: asteazkena

Ordua: 18:30 - 20:00

Hasiera: urriak 4

Iraupena: ikasturte osoa

Hizkuntza: elebiduna



Antzerkiaren bidez gorputzez adierazteko bizipen-tailerra da hau. Kontzientzia fisikoa, emozionala eta politikoa hartzeko gune honetan, antzezteko eta komunikatzeko ahalmena ere garatuko dugu. Denen artean gure pozak eta ondoezak askatzeko eta eraldatzeko talde eszenak sortuko ditugu, erantzun feministak inprobisatuz.

Antolatzailea : Emakumeen Etxea Elkartea

KLOWN

Formatzailea: Beatriz Egizabal

Eguna: Astelehena

Ordua: 19:00 - 20:30

Hasiera: urriak 2

Iraupena: ikasturte osoa

Hizkuntza: elebiduna

Gozamenez, barre algarez, adierazpen artistiko zein politikoz eta jolas eta inprobisazioz beteriko elkartasunerako eta gogoeta feminista kolektiborako gunea.

Anima zaituz Clown teknika erabiliz, arauak eta estereotipoak zalantzan jartzera eta, aurre egin patriarkatuari barrearen bidez!



Antolatzailea : Emakumeen Etxea Elkartea

FLAMENKO FEMINISTA

Formatzailea: Askoa Etxebarrieta
"La Pulga"
Eguna: Osteguna
Ordua: 18:30 - 20:30
Hasiera: urriak 5
Iraupena: ikasturte osoa
Hizkuntza: elebiduna



Dantzan bigarren mailako rolak edo rol estereotipatuak izateaz nekatu garelako, egitura patriarkal eta sexistei desafio egiten diegu flamenko feminista tailer honetan! Gorputza, musika eta flamenkoaren bidez gure burua aitortu, bizipenak partekatu eta taldean elkar hartzeko gunea.

Anima zaitetz feminismoz blai gorputza eta burua astintzera!!

Antolatzailea : Emakumeen Etxea Elkartea

BATUKADA FEMINISTA

Formatzailea: Ainar Saraseta
Eguna: asteazkena
Ordua: 18:30 - 20:30
Hasiera: urriak 4
Iraupena: ikasturte osoa
Hizkuntza: elebiduna

Espazio honetan perkusioa eta erritmoak baino askoz gehiago aurkituko duzu. Talde-lanak, musika-sorkuntzak eta aldarrikapen politiko feministek bat egiten dute hemen. Batukadako instrumentu bat jotzen ikasi eta sarea sortu nahi baduzu, eman ize-na!



Antolatzailea : Emakumeen Etxea Elkartea

XAKE

Formatzailea:	Elisabeth Agirre Leire Cruz
Eguna:	asteazkena (Xake1) osteguna (Xake2)
Ordua:	18:30 - 19:30
Hasiera:	urriak 4 (Xake1) urriak 5 (Xake2)
Iraupena:	ikasturte osoa
Hizkuntza:	elebiduna



Berrikusi oinarrizko kontzeptuak edo hobetu zure xake-trebetasunak. Zure pentsamendu estrategikoa sustatu eta emakumeen parte-hartzea xake txapelketetan ikusarazteko gogoia baduzu, eman izena!

Antolatzailea : Emakumeen Etxea Elkartea

KOROA

Formatzailea:	Bettina Aragón
Eguna:	ostirala
Ordua:	19:30 - 21:00
Hasiera:	urriak 6
Iraupena:	ikasturte osoa
Hizkuntza:	gaztelania

Aurten ere, Emakumeen Etxeko koroa, Ederlezi, ahots eta harmonia berrietara irekia dago! Taldean abestea gustatzen bazaitu, egin bat emakumezkoen ahotsak eta feminismoa adierazteko gune honekin eta ezagutu gure erreperitorioa, emakumeek idatzi edo moldatutako abestiz osatua!



Antolatzailea : Emakumeen Etxea Elkartea



IRAKURKETA FEMINISTARAKO GUNEA

Pentsamendu kritiko feminista sortu eta partekatzeko guneak, korronte edo garai anitzeko idazleen irakurketatik abiatuta.

Talde gehienetan alor zehatzak landuko dira.

ERROTZEAK ETA DESERROTZEAK EUSKAL LITERATURAN

Azken aldian errotze eta deserrotzeen inguruko literatur lan ugari argitaratu dira, guztietan ere pertsonaiek edo ahots literarioek bizi-ibilbideak eta desplazamenduak dituzte mintzagai. Askotariko errotze eta deserrotzeak dituzte hizpide literatur lan hauek: errotze eta deserrotze afektiboak, errotze eta deserrotze ekonomikoak, errotze eta deserrotze politikoak, eta abar. Irakurle-talde honetan errotze eta deserrotzeen inguruko literatur lanak izango ditugu hizpide, betiere genero-ikuspegiak errotzeko eta deserrotzeko modu horiek nola zeharkatzen dituen aztertzeko asmoz. Galdera hauetariko zenbait erantzuten ahaleginduko gara, beraz: zein errotze eta deserrotze irudikatu dira euskal literatura garaikidean? Errotze eta deserrotze horiek zer genero-ikuspegi irudikatu dituzte? Errotze- eta deserrotze-prozesu irudikatzean, nolako proposamen feministak egin dira? Irakurleok nolako harremanak eraikitzen ditugu geure (des)errotzeak pertsonaien edo ahotsen (des)errotzeekin alderatzean?

Formatzailea: Iratxe Retolaza

Eguna: asteartea
hilabetean behin

Ordua: 19:00 - 21:00

Hasiera: urriak 3

Iraupena: ikasturte osoa

Hizkuntza: euskara

IRAKURLE ESKOLA FEMINISTA

Formatzailea:	Iratxe Retolaza
Eguna:	asteartea, hilabetean behin
Ordua:	19:00 - 21:00
Hasiera:	irailak 19
Iraupena:	ikasturte osoa
Hizkuntza:	euskara



Zeharkatzen gaituzten bizi- esperientziek, zenbait galdera eta pentsamendu sortzen dituzte gure baitan eta irakurle talde honetan, horiei buruz eztabaidatuko dugu pentsamendu feministarako zenbait erreferentziatzako lan erabiliz. Euskal kulturaren testuingurua beti gogoan hartuta, zenbait testu eta irakurgaiez baliatuko gara eta denen artean irakurritakoa aztertuko dugu ekarpenak landuz eta hauek ikuspegi feministatik birpentsatuz.

Antolatzailea : Emakumeen Etxea Elkarte

“ALCOHOLICAS Y DROGADICTAS” IKASTAROA

Formatzailea:	Mertxe Tranche
Eguna:	osteguna, hilabetean behin
Ordua:	19:00 - 21:00
Hasiera:	urriak 26
Iraupena:	ikasturte osoa
Hizkuntza:	gaztelania

“Alcohólicas y drogadictas” gaiaren barruan, emakumeei dagokienez, drogen eraginpean sortzen den artistaren estereotipoa nola aldatzen den aztertuko dugu. Emakume idazleen bititzi buruz eta adikzio horiek fikzioen eta autofikzioen sorreran nola islatzen diren ikertuko dugu.



Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkarte

“CAMBALACHE” IKASTAROA

Formatzailea:	Mertxe Tranche
Eguna:	asteartea, hilabetean behin
Ordua:	19:00 - 21:00
Hasiera:	urriak 3
Iraupena:	ikasturte osoa
Hizkuntza:	gaztelania



XIX. mendearen amaieratik eta XX. mendearen hasieratik, emakumezko idazleak literatur mugimendu kolektiboetan sartu ziren, ia lehen aldiz. Cambalachen ibilbide bat egingo dugu korrante horietan barrena, Emakume Berriaren mugimendutik hasi eta modernismora edo Harlemgo Errenazimentura arte, eta, gainera, mugimendu horiek modan, jantzietan edo garraiobideetan duten eragina aztertuko dugu.

Antolatzailea: Berdintasun Saila

“BESTE AHOTS BATZUK” IKASTAROA

Formatzailea:	Mertxe Tranche
Eguna:	asteartea, hilabetean behin
Ordua:	19:00 - 21:00
Hasiera:	urriak 10
Iraupena:	ikasturte osoa
Hizkuntza:	gaztelania

Gutako bakoitza munduari buruzko begirada bat gara. Begiratzeko modu asko daude, ikusten dena kontatzeko modu desberdinak dauden bezala. Batzuk gugandik hain urrun daudenez, badirudi beste mundu bat dela begiratzen dutena, eta hala izango da seguruenik. Ikastaro honetan, beste kontinente batzuetako emakumeak ezagutuko ditugu, beste kolore batzuetakoak, beste kezka batzuetakoak, beste begirada eta ahots batzuk dituztenak, ikusten duguna berriro argitzeko gai direnak.



Antolatzailea: Berdintasun Saila

FORMAKUNTZARAKO BLOKEAK

KOMUNITATE FEMINISTA SORTZEN

**Gai zehatzak lantzeko gune trinkoak, non
diskurtsoak sortzen ditugun eta elkar
hartzen dugun, formakuntzen bitartez
elkar ahalduntzeko xedearekin**



ELKAR MOTIBATZEKO GENEALOGIA GALDUAK

(6 saio)

Formatzailea: Itziar Ziga
Eguna: astelehena
Ordua: 18:30 - 20:30
Hasiera: azaroak 20
Amaiera: urtarrilak 22
Hizkuntza: gaztelania

Tailer honetan gure genealogia galduetatik gure sasiko gaurkotasuneraino murgilduko gara, emakume zapalduenek beti bigarren mailako papera, rol pasiboa, duten historia bakar hori ukatzeko, eta honako galdera hau egingo diogu geure buruari: Bigarren Mundu Gerraren eta deskolonizazioaren ondorengo mugimendu feminista itzelean zer egin zuten emakume langileek, lesbiariek, beltzek, ijitoek, putek, transexualek, ama ezkongabeek, mojek, eroek, diskek, langabeek? Ez al zuten borrokatzen beren zapalkuntza propioa eta espezifikoa aurka? Ez al zioten ekarpenik egin feminismoari?



Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

KOLEKTIBOA NOLA SORTZEN DUGUN BERRIKUSTEN

(5 saio)

Formatzailea: Elene Lopetegi
Eguna: astelehena
Ordua: 18:30 - 20:30
Hasiera: urriak 9
Amaiera: abenduak 4
Hizkuntza: euskara



Kapitalismo heteropatriarkalaren indibidualtasuna zalantzan jartzea eta borrokatzea ezinbestekoa da kolektiboa feministikotik eraikitzen dugunean. Tailer honetan kolektiboan gaudenean sortzen diren dinamika aitortu eta landuko ditugu, taldean zein gizartearen aldaketa bultzatzeko hobe-kuntza-gakoak aztertuz.

Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

“FEMINISMOTIK BIRPENTSATU AL DEZAKEGU MAITASUNA? GURE HARREMANETAN PRAKTIKA ASKEAGOAK AZTERTZEN”

(6 saio)

Formatzailea: Laura Latorre
Eguna: asteartea
Ordua: 18:30 - 20:30
Hasiera: urriak 10
Amaiera: azaroak 21
Hizkuntza: gatzelania



Tailer hau gure harremanak idealizatzen dituen maitasunaren eraikuntza kulturala zalantzan jartzeko gonbidapena da, aginduez, beharrez eta arauz gainezka dagoena. Horretarako, bizi garen testuinguru heteropatriarkal eta kapitalistan naturalizat eta unibertsaltzat jotzen diren erodei buruzko hausnarketa kolektiboa egingo dugu. Maitasun-diskurso horren ordezkotzat kontaktatzeko espazio bat sortu nahi dugu, indarkeriatik urrun dauden harremanetarantz egiten dugun migrazioan laguntzeko.

Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkarte


ANTZEZTUTAKO IRAKURKETAK

(5 saio)

Formatzailea: Olatz Beobide
Eguna: asteartea
Ordua: 19:00 - 20:30
Hasiera: urriak 3
Amaiera: abenduak 12
Hizkuntza: euskara

Emakumeek idatzitako testuak ezagutzeaz eta irakurtzeaz gain, zure ahotsetik eta gorputzasunetik abiatuta bizia ematera animatzen bazara, ez izan zalantzarik eta eman izena!

Tailer honetan literaturatik haratago joango gara, gure buruak kontakizunen protagonista gisa eraikiz eta gorputzetatik feminismoa eginez.



Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkarte

GENEROA DESPROGRAMATZEN

(5 saio)

Formatzailea: Clara Wolfram

Eguna: Osteguna

Ordua: 18:30 - 20:30

Hasiera: urriak 5

Amaiera: azaroak 30

Hizkuntza: euskara

Pentsa dezagun ondo: gazte ginela, zenbatak irakatsi ziguten pentsatzera gelditzen, sentitzen, zer nahi dugun eta zer behar dugun? Gure denbora eta energia zertan inbertitu nahi dugun? Norantz jo nahi dugun? Zerk egiten digun on eta zerk kentzen digun indarra? Zein den gure nahi eta gure beldurra? Eta zer laguntza eta harreman eraiki nahi ditugun? Emakume izateagatik mundu guztiarekin atseginak eta malguak izatea espero den bitartean, lehenbizi guran pentsatzeko aukerak ihes egiten digu. Tailer honetan, "lozorro" honetara garamatzaten sinesmenak desmuntatu ditugu eta gorputza, emozioak, desirak eta horiekin batera datozen hitzak entzungo ditugu.



Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkarte

AUTODEFENTSA FEMINISTA TAILERRAK



Ikasi nahi duzu eraso matxistei aurre egiten?

¿Kalean aske sentitu nahi duzu? Uste duzu ezingo zarela defendatu?

Euskaraz (8 ordu)

ABENDUAK 16

Formatzailea: Emagin

Eguna: larunbata

Ordua: 10:00 - 14:00

15:00 - 19:00

Gaztelaniaz (11 ordu eta erdi)

ABENDUAK 1 - 2

Formatzailea: Isa Bernal

ostirala: 16:00 - 19:30

larunbata: 10:00 - 14:00

15:00 - 19:00

Antolatzailea: Berdintasun Saila

ELKARGUNEAK

Talde hauek ikasturte osoan zehar elkartzen dira eta gehienak irekiak mantentzen dira parte hartzaile berrientzat. Parte hartu nahi baduzu, deitu edo gerturatu Emakumeen Etxera.



NESKA GAZTEENTZAKO JABEKUNTZA GUNEA

ETXEKO LANGILEEN TALDEA

Eguna:	asteartea, hilabetean behin
Ordua:	17:30 - 19:30
Hasiera:	irailak 12
Iraupena:	ikasturte osoa
Hizkuntza:	elebiduna

Eguna:	asteartea
Ordua:	16:30 - 18:30
Hasiera:	irailak 12
Iraupena:	ikasturte osoa
Hizkuntza:	gaztelania

Donostiako Emakumeen Etxean neska eta genero anitzeko gazteei zuzendutakoa da. Gune honetan Feminismoarekin, Jabekuntzarekin, Harreman Parekideekin... lotutako gaiak lantzen dira eta Jabekuntza prozesu bat bezala planteatzen da.

Zeini zuzendua?

15 - 20 adin tarteko neska eta genero anitzeko orori.

Nola eman izena?

Astelehenetako Biluzik Zerbitzura hurbilduz, **biluzikzerbitzua@hotmail.com** helbidera edo **lahia3.0** instagrameko kontura idatzi daiteke ere. Donostiako Emakumeen Etxearekin harremanetan ere jarri zaitezke eta zita bat jarriko dugu, zure beharrak eta nahiak ezagutzeko.



Atzerritar jatorriko etxeko langileentzako asteroko topagunea. Helburua isolamendu soziala haustea eta elkarri laguntzeko eta entzuteko sareak sortzea da.

INDARKERIARIK GABEKO BIZITZAREN ALDEKO EMAKUMEAK

Eguna: asteartea
Ordua: 16:30 - 18:30
Hasiera: irailak 12
Iraupena: ikasturte osoa
Hizkuntza: gaztelania



Indarkeria matxistari aurre egiten dioten edo aurre egin izan dioten emakumeak taldean elkartzeko gunea.

Astean behin biltzen dira (joatea libre da). Autolaguntza taldea da. Askatzeko hainbat modu baliatuta, indarkeriari irtenbideak bilatzen laguntzen du. Emakumeek beldurrak, isolamendua, tristeziak eta kulpak partekatzen dituzte haien artean, eta barnean duten indarrarekin konektatzen saiatzen dira, indarkeriarik gabe bizitzen laguntzeko: zer gertatzen zaien jakin, pozarekin konektatu, nork bere gorputza zaindu, desirekin duten harremana ezagutu eta taldearen laguntza jaso.

Antolatzailea: Berdintasun Saila

JATORRI ASKOTARIKO EMAKUMEENTZAKO KULTURARTEKO GUNEA

Eguna: osteguna
Ordua: 16:30 - 18:30
Hasiera: irailak 7
Iraupena: ikasturte osoa
Hizkuntza: gaztelania

Jatorri desberdineko emakumeak taldean egoteko gunea. Astean behin biltzen dira (joatea libre da), beren bizitzan migrazioa nola bizi duten elkarrekin aztertzeko. Zailtasunetatik ikasten dute eta sozializatzen dituzte banakakoen eta taldearen lorpenak. Osasun fisikoa eta emozionala hobetzeko eta bizi diren hirian gehiago sustraitzeko tresna nahiz baliabideak bereganatzen dituzte; isolamendutik ateratzen dira; euskal gizartea eta jatorrizko gizartea, biak, ezagutzen dituzte; elkarrekin aisialdi, dibertsio eta ezagutza ekintzetan parte hartzen dute.



Antolatzailea: Kultur Aniztasuneko Saila

TALDEKO LAGUNTZA PSIKOLOGIKOA

Eguna:	asteartea, hilabetean behin
Ordua:	14:30 - 16:00
Hasiera:	irailak 5
Iraupena:	ikasturte osoa
Hizkuntza:	gaztelania



Talde gune bat, bakarka nahiz gizarte aldetik egoera bereziki zaugarrian dauden emakumeentzat. Gogoeta egiteko gonbita egiten digun gunea, gure ustez zapaldu egiten gaituen hori komunean jarrita. Eta talde prozesu bat, nortasun tradizional haragitu hori eraldatu eta jaso ditugun kultura-sinesmen, jarrera eta ohituren baliokotasunari aurre egiteko modua ematen duena, jaso ditugun nortasun eta sinesmen horiek ez baitigute uzten gure erabakien jabe izan eta bizitza autonomo eta indarkeriarik gabeari aurre egiten.

Antolatzailea: Berdintasun Saila

DESGAITASUNA DUTEN EMAKUMEEN AHALDUNTZE TALDEA

Eguna:	ostirala
Ordua:	11:30 - 13:30
Hasiera:	irailak 8
Iraupena:	ikasturte osoa
Hizkuntza:	elebiduna

Desgaitasuna duten emakumeak elkartzeko gunea da, norbere burua ezagutu eta aitortu ahal izateko. Desgaitasuna duten emakumeek bizi duten diskriminazio bikoitzaren egoera aztertzea du xede talde honek, ahultasunari eta desparekotasunari aurre egiteko.

Horretarako ezinbestekoa da beraien eskubideak ezagutzea eta horien gauzatzea sustatzea, norbanako eta taldeko ahalduntzea lantzeko bidean.



Antolatzailea: Berdintasun Saila

Arreta eta bideraketa

Informazioa, orientabidea eta harrera Emakumeen Exeko bertako balibideetara edo kanpokoetara bideratzea.

Egilea:
Emakumeen Exeko bertako langileak

Astelehenetik ostiralera
10:00 - 21:00
Hitzordurik gabe

Exeko Langileentzako Aholkularitza

Honako gaien inguruko aholkularitza: eskubideak eta betebeharrak, soldatak, kontratu motak, oporrak, egun eta ordu libreak, kotizazioak, baimenak, kaleratzeak...

Egilea:
SOS Arrazakeria

Asteartea
16:30 - 18:45
Hitzordurekin

Lege Aholkularitza

Familia zuzenbidea, lanerako zuzenbidea, atzerriartasuna, genero indarkeria.

Egilea:
Emakume Bananduen Elkarte

Asteazkena
17:00 - 21:00
Hitzordurekin

Ordenagailu eta Internet zerbitzua

Asteaz zehar.
Doako erabilera.

Ordutegia:
10:00 - 21:00

ZERBITZUAK

Hitzordua eskatu ahal izango duzue telefono honetan

 **943 48 34 70**

* Zerbitzuetan hartutako hitzorduetara aurrez abisatu gabe joaten ez direnek ezin izango dute zita berririk eskatu urtebeteko epean.

Laguntza Psikologikoa

Aholkularitza, prebentzioa eta ahal-duntzea helburutzat izanik eta metodologia elkarreragileaz baliatuz, norberaren indarretan oinarritutako baliabideak lortuko dira.

Egilea:
Amanda Jiménez

Asteazkena
10:00 - 14:00
Hitzorduarekin

Gizarte Aholkularitza

Gizarte laguntzei buruzko informazioa behar duzu?
Etxebizitza? Enplegua edo formazioa?

Egilea:
Rosa Ugalde

Ostirala
10:00 - 11:30
Hitzorduarekin

Entzuteko eta feminismotik jarduteko gunea

Beste norabide bat hartu nahi duten emakumeei zuzendua, eta segurtasun nahiz konfidantzazko gune batean aukerak probatu nahi dituztenentzat.

Hitzorduarekin


Biluzik Mundura

Sexualitate informazioa eta aholkularitza zerbitzua.

Egilea:
LAHIA 3.0

Astelehena
17:00 - 20:00
Hitzorduarekin

Sare sozialetan:

 @lahia3.0

Email:
biluzikzerbitzua@hotmail.com

Parekatu

Ikasketak eta prestakuntza-ibilbideak homologatzeko aholkularitza.

Egilea:
Bidez Bidez

Osteguna
10:00 - 13:30
Hitzorduarekin



DONOSTIAKO EMAKUMEEN ETXEA

Okendo kalea 9

